

Pulpitua eta talaia

Amagoia MUJKA
TELLERIA

Haserre nago. Elisa Mouliaak salaketa jarri du Iñigo Errejonen kontra. Joan da epaitegira Mouliaa ahalik tenteen, burua gora, gertatu zena kontatzera. Eta epaileak, Carretero izeneko batek, berriz egin dio eraso, bortitz, bere pribilegiadun pulpitutik. Irudiak ikusita, sentitu dut emakumeak begirada eta burua jaitsi arte ez duela bakerik hartu epaileak. Bularrak zenbat denboran zurrupatu ote zizkion, kuleroak kendu ote zizkion, zakila zertarako atera ote zuen, ea seguru ez ote zuen ezer nahi Errejonekin... baina, zertan ari da epailea? Errejonek berak jakingo du zakila zertarako atera zuen, ezta? Zakila berea da eta berak agintzen du haren

gainean. Bai, gizonezkoa da eta berak du bere gorputzaren gaineko agintea. Elisa Mouliaa, aldiz, emakumea da eta bere gorputzaren gainean jende askok agintzen du; bai eraso egin zion gizon hark, baita egunotan bere hitz eta keinu guztiak epaitu dituzten guztiek ere. Eta, tartean, noski, datozen aste eta hilabeteetan egingo duena lupaz begiratu duten guztiek. Eta baita Carretero epaileak ere, galdeketa bortitz horretan ez diolako baimendu duintasuna gorputz zauritu horri. Haserre nago, lotsagarria bezain ezauna egin zaidalako epailearen pulpitu hori. «Seguru ez zenuela ezer nahi?». «Gona motz horrekin hoztu egingo zara». «Ibili egin behar da ordu horietan

bakarrrik». «Zer egiten zenuen tipo harekin?». «Ez izan esajeratua, neska, ez da hainbesterako». «Gaizki ulertuko zenuen». «Gaur egun ezin da ezer esan»... Ezaguna egin zait Carretero epailearen pulpitua. Hortik epaitzen gaituzte emakumeak, goitegi horretatik eta ahots tonu horrekin. Eta ez da gaurko kontua, mende askotakoa baizik. Arazoa da pulpitua talaia bihurtzen ari dela, Carretero eta enparauen izurako. Datorren jendartea ikusten da talaia horretatik, eta feminista izango dela begitantzen da. Bertan kabitzen ez direnak jaistera gonbidatu beharko dira. Eta, bestela, bultzadatxo bat eman. Pulpitua eta talaia oso toki diferenteak direlako. •

Maccabi eta genozidioaren zurikeria

Koldo SAGASTI

470 eguneko sarraskiaren ondoren, pasa den asteburuan indarrean sartu zen itxurazko su-etena Palestinan. Itxurazkoa; izan ere, hiru egun geroago, lerrook idazteko momentuan, 160 baino gehiagokoa da Israelgo armadak Gazan zein Zisjordanian eragindako hildako palestinarren kopurua. Ezin genuen gutxiago espero, ez baitago joko araurik, ez nazioarteko kontsentsurik, azken mendean erregimen sionistak urratu ez duenik. Agertoki berriak aurrekaririk gabeko panorama lazgarria utzi du, bereziki Gazako zerrandan, eta ez bakarrik eraildakoen kopuruagatik. Hamarkadak beharko dira, besteak beste, azpiegitura zibilen suntsipenari, goseteari, eritasun ku-

tsakorren hedapenari eta lurren kutsadurari buelta emateko. Duela hilabete, Yasmeeen El Hasanek, Palestinako Nekazarien Komiteen Batasuneko ekintzaileak, Euskal Herrian zehar egindako hitzaldi-bira batean esaten zuenez, «Israelek ez dio palestinarrek garbitzeari utziko, harik eta jarraitzea gelditzea baino garestiagoa ateratzen zaion arte». Eta horixe da gakoa, gaur-gaurkoz oso merke ateratzen zaiola. Datorren otsailaren 7an, Tel Aviveko Maccabi saskibaloia taldea Gasteizera etortzeko da, Baskoniaren kontra Eurologako partida jokatzera. Maccabi Israelgo erregimenaren kirol-enbaxadore nagusia da, eta azken hamarkadatan nabarmendu da sostengu publikoa

emateagatik armada sionistari, bereziki genozidio-ekintzen testuinguruan, beharrezkoena zenean administrazio terroristaren irudia zuritzea. Azken 470 egunetan ezer gertatu ez balitz bezala, partida hau jokatzeko naturaltasunez onartzen badugu, genozidioaren normalizazioa onartuko dugu. Askok dira esku artean erantzukizun historiko bat daukatenak; Baskoniako zuzendaritzatik hasita, haien esku baitago partida jokatzeko edo ez jokatzeko; Arabako Foru Aldundira, pabilioiaren jabea izanik, bertan antolatzen diren ekintzen gainean eskumena duelako. Haiek daukate partida hau gelditzeko ardura historikoa, behingoagatik genozidioarekin kolaboratzea garesti ateratzen has dadin. •